



# Basagutxi etxebarría (-a) etxebizitza

Aldaerak:  
Ahozkoa: Etxebarri



43° 10' 57"

2° 35' 24"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

*“... una casa denominada Basaguchi-Echevarria... en Andicon del barrio del Oeste de la anteiglesia de Berriz se compone de piso llano de zagan, cocina y dos cuartos: en el piso llano de un cuarto y en el superior camarote y en resto del alto en bajo cuadra pajaro... mide su planta ciento noventa y siete metros cuadrados...”*  
DJE 6/79 or. (1891)

*Basagutxi* etheen artean berriena da honako hau, eta XVIII. mende erdialdean dugu honen berri lehenbizikoz, Bizkaiko su-erroldean *Basaguhea Echevarria* (1745) ageri baita. Izenaren bigarren osagaiak adierazten duen moduan, etxe berria da. Aldaera gutxi jasan ditu izenak dokumentazioan, eta beti forma bera mantendu du: *Basaguchi-Echevarria* (1840, BAHF, A334/19) eta *Basaguchi-Echevarria* (1891, DJE, 6/ 79. or.). Salbuespen moduan, arestian aipatutako Nomenclatorra dugu, bertan *Basaguchias* (1859) moduan izendatzen baitira zonalde honetako baserri-etxeak. Ahozkoatasunean, berriztarren artean *Etxebarri* forma da gehien erabiltzen dena baserrietxe hau identifikatzeko.

Baserri bitxia, harrizko horma biren artean eraikitakoa, Bizkaiko erdialdean eta mendebaldean gehiago ikusten den trazan. Fatxada nagusian, beheko solairuan harrizko gorputz bakarra dauka ezkerrean eta beste guztia, atarte zabal batek hartzen du. Hau zurezko dintelduna da eta, eusteko, harrizko pilarea dauka alde batean, erdian barik. Gaineko guztia egurrezko egituraz egin zen eta tarteak luzitu eta pintatuta daude. Harriaren tratamendua ohikoa da, harlandua, ertz danetan eta harlangaitza, gainerakoetan. Fatxada nagusiko harrizko leiho bakarrak hegi molduratua dauka. Teilatua bi isuritakoa da, miru buzтана gehitu bazioten ere. XVIII. mende hasieran eraikiko zuten.

## toponimia

Maiz esan dugun legez Bizkaian ohikoa da etxe berriak elkarren ondoan eraikitzea eta ondorioz jatorria etxe izena zela auzo izen bihurtu eta horko etxe izen guztietan ageri da. Kasu honetan etxe berria besterik ez. Holakoetan ohikoa da ahoz bigarren zatia besterik ez erabiltzea “Etxebarri” eta izen osoa bakar bakarrik erabiltzea nahasteko aukera dagoenean. Esan bezala, izen hau gaur egun sortuko bagenu Basotxikia esango genuke gutxi garai batean txiki esateko erabiltzen baitzen. Araban, esaterako, Miñano Menor herriaren euskal izena Miñaogutxi da. Hitz konposatuetan, euskaraz, ohikoa da -o>-a aldatzea (pagadi, basakatu...) eta horregatik ageri da basa.